

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2010eko ekinaren 2an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

6.- ARTIKAKO BIDEA EGOKITZEKO AZTERKETEAREN IDAZKETA LANAK BEHIN BETIKO ESLEITZEA.

Xedea

Artikako Bidea egokitzeko azterketearen idazketa lanak behin betiko esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2010eko maiatzaren 5ean Tokiko Gobernu Batzarrak Artikako Bidea egokitzeko azterketearen idazketa lanak behin-behinekoz esleitzea erabagi eban.

Bigarrena: 2010eko maiatzaren 11n behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratu zan.

Argudioak

Bakarra: Behin-behineko esleipenaren iragarkia legeak agintzen dauen denporan egon da iragarrita eta, epe horretan, ez da alegazinerik ez erreklamazinerik jaso. Bestalde, behin-behinekoz proposatutako esleipendunak emondako epearen barruan bete dauz beraren eginbeharrak, eta, ondorioz, legezko urrats guztiak bete dira behin-behineko esleipena behin betiko bihurtzeko.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Artikako Bidea egokitzeko azterketearen idazketa lanak behin betiko esleitzea, era honetan:

ENPRESEA: INGEPLAN CONSULTING, SL (IFZ: B95557468)

PREZIOA: 17.703,45 euro (BEZa kanpo). BEZari jagokon zenbatekoa 2.832,55 €-koa da. Guztira, 20.536 €.

EXEKUZINO EPEA: Hilebete.

OBRA HONETAN LAN EGINGO DABEN LANGILEAK: 1 langile (ez da langabeziatik kontratutako langilerik egongo)

BIGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea hamar (10) laneguneko epean, behin betiko esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontratua sinatu beharko dauela, eta holan egin ezean udalak kontratua bertan behera itxi ahal izango dauela.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko ekainaren 7an.

ONETSIA
ALKATEA